

Eskubideen jabe

Euskaldunon Egunkaria, 1998-05-21: 3.

Iraultza frantsesa erabiltzen da sarri giza eskubideen iturri nagusi bezala. Beste klixe asko legez, ez da egia oso eta betea, ordea; geu, euskaldun xumeok, ongi kokatuak gaude lekukotasunerako.

Egia da iraultza odoltsu honek bide berri eta aurreratu batzuk ireki zizkiola gizateriari, baina emaitza hau lortzeko geuk ere jasan izan behar genituen orain bi gizaldi pasatxo injustizia eta odol isurtzeak, eta geroztik jasaten ari gara oraindik ondore latzak. Gaur Euskal Herria hain ezaguna egin duen gurutzebide larriaren arrazoinetako bi, hizkuntzaren ahulezia eta zatiketaren gaiztoa dira. Euskal Herria bizitzen ari dena kalbariozkoa dela esatea ez da topiko bat; kulturalki, juridikoki, gure herriak ez du geroztik bere senaren jarraimen naturalik bizi izan, eta gero eta biziago ari zaigu historia erakusten hondamena nondik nora etorri den eta nork nozitu dituen ondorioak. Europa berrirako exenpluari begira jarri besterik ez dugu gaur ere. Orain berrehun urteko izpiritu zekena bizi da hemen oraindik, frantsesa garai hartako jarrera harro eta despota berarekin plantatu zaigu Chirac presidentea Bruselan. Hizkuntza minorizatuen eskubideei uko egin dion estatu bakarra izan da, eta eginberria duen legez kanpoko laidoa aurpegiratu dio Win Duisenberg holandarraren eskubide duinari beste hamalau estatu-buru haserreren aurrean.

Gure herriak iraun du, milagrozt bizi gara, eta uste genuen, bada, gaur berreraikitzen ari garen Europa berrian ez genuela honelako miseria gehiago jasan beharrik izango, baina Chirac-ek erakutsi digu gaitz zaharra hemen dagoela bere harrokeriarekin, sakea eta esperantza, biak batera, oraino bereak izango direla mundu honetako pilota jokoan eskubideen eta askatasunaren zeruaren jaun eta jabe.

Infernua guretzat.